

Kinpart⁵⁸

www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2014ko
APIRILA





txinpart⁵⁸

www.hurtzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hurtzaro informatzen.....	3
Euskararen txokoa	12
Hatzak bete lan	15
Inauteriak.....	19
Gu ere kazetari	33
Nahaste borrate.....	38

ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola
Elorondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

bigarren oporraldiaren atarian

Ikasturteko bigarren oporraldiaren atarian gauden honetan, zuengana gatoz beste behin ere aurtengo Txinpart bigarren alearekin, 58. alea.

Bigarren hiruhilabeteko ikastolako berriekin batera, ikasleen lan oso interesgarriak aurkituko dituzue bertan; horiekin batera beste gai orokorragoak: Euskal Herriko Ikastolek antolatutako Jardunaldi Pedagogikoetan gure ikastolak egin duen lanaren aurkezpena, Udal Ikastola Partzuergoaren izen berria, Aitor Puertas ikasle ohiari elkarriketa oso interesgarria... Oraingoan ere hau guztia ikusi eta irakurtzeko tarte-txo bat hartzea gomendatzen dizuegu; bakarrik, seme-alabekin... edozein modu da egokia gure ikastolako berriak jasotzeko.

Bigarren hiruhilabeteko ale hau bada garrantzitsua, hurrengo ikasturterako matrikulazioa egiteko garaia ere badelako. Otsailaren 3tik 14ra ikastolan matrikulatzeko eskabide berriak egiteko epea ireki genuen, eta emaitzekin oso pozik gaude, herritarren gehiengoak gure proiektua aukeratu baitu oraingoan ere beren seme-alabaren heziketarako. Lerro hauen bidez ongi etorririk beroena eman nahi dizuegu gure ikastolara, ikastolaren familiara, zatozten kide berriei.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi denbora tarte hau ez dela gure familia guztientzat berdina izan. Gure ikastolako kide batzuek bereziki, etxean egoera triste eta mingarria izan dutelako; nola ez, aurrerantzean ere ikastolako ikasle guraso eta langile guztiak bidelagun izango gaituzue zuen saminean. Bizitzak aurrera jarraitzen du, gure erronkak garbiak dira, eta elkarrekin ekinez eta eginez gure proiektua garatzen jarraituko dugu.

Atsedenaldi txiki bat dugu datozen egunetan: oporrak!!

**gozatu!!
indarberritu!!
ongi pasatu!!**

Udal Ikastola Partzuegoa proiektuari izena jartzearen kontua ez da ikasturte honetako, baina gaiari fundamentuz orain eutsi diogula aitortu beharra dugu. Egin dugun bideari buruz informazioa Udala informatzen 73. alean, Goiatz Labandibarrek idatzitakoa, oso modu egokian jaso dagoenez, artikulua huraxe jaso dugu atal honetan. Ia gustukoa duzuen.

Urmendi

izena duen guztia bada

**Udal Ikastola Partzuegoak
0-3 hezkuntza proiektuari eta
egoitza berriari izena eman dio**

2011ko urrian Udal Haur Ikastola Partzuegoaren eraikin berria inauguratu zenean, egoitzari izena jartzeko premia sentitu zuten haur eskolan. Gainerako egoitzek bazuten izena —Iturburu, Haurtzaro Ttiki eta Harri Gain— eta ez zen, bada, izenik gabe geldituko egoitza berria!

Honela, Udal Ikastola Partzuegoko lagun bat Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunearekin harremanetan jarri zen, oiartzueraz haur hizkuntzarekin lotuta zeuden hitzak biltzeko. Ttur-Tturrek zenbait proposamen egin zituen (*ttunkurrunkuttuna*, *haurkontu*, *haurtzai...*), baina, azkenean, bere horretan gelditu zen prozesua.

Aurtengo ikasturte hasieran, klaustroak berriro eraikin berriari izena jartzeko proposamenari heldu zion eta Zuzendaritza Batzordean aurkezterakoan, Zuzendaritza Batzordeak 3 urte arteko hezkuntza proiektu osoari ere izena jartzea erabaki zuen.

Zenbait irakaslek proposamen modura izen batzuk ere aurkeztu zituzten. Zuzendaritza taldeak ere proposamen gehiago zerrendatu zituen, ideia baten inguruan: “Sinbolikoki bada ere, haurrek hezte prozesuan egiten duten ibilbidea irudikatzea beti ere naturarekin eta Oiartzungo izaerarekin loturik”, azaldu dute Naiara Arbelaitz haur eskolako zuzendariak eta Ibintza Iragorri laguntzaile pedagogikoak.

Eta, izena duen guztian ba omen denez, eraikuntza berriaren izenaz gain, aurrerantzean Urmendi da Oiartzungo 3 urte arteko hezkuntza proiektuaren izena.

**Amalurra,
euskal nortasuna eta Oiartzun**

Baina nola irudikatu dezake izen batek hezte prozesu osoa? Hiru oinarritan jarri zituzten izena bilatzeko nondik norakoak: euskaldunok betidanik naturarekin, amalurra-ekin izandako lotura; euskal nortasuna eta Oiartzunekin lotua egotea.

“Ura, erreka, sortzen denetik ibai bihurtzen den arte handitzen doa, bide baten barruan beti ere. Haurrak gure laguntzarekin hezi eta haztea irudikatzen du metaforak”, azaldu du Iragorrik.

Beraz, Oiartzungo ur, erreka sorlekuen izenak bilatu zituzten. Horretarako laguntza eskatu zuten eta bi mapa toponimiko erabili zituzten: OBIE taldeko Iñaki Arbelaitzek, Nikolas Etxebestek eta Joxe Manuel *Lekuonak 1988an egindako Oiartzungo Bailarako Mapa* eta 1999an Ikermapek egindako Oiartzun mapa.

Proposamen hauen guztien berri Zuzendaritza Batzordean eman ondoren, gainerako proposamenekin batera irakasleen klaustroan aurkeztu zituzten Arbelaitzek eta Iragorrik.

Naturarekin loturiko ideia berri honek indarra hartu zuen irakasleen klaustroan eta baita Partzuegoko Zuzendaritza Batzordean ere. Azkenik, Urmendi izan





zen irakasleen artean gustukoena eta Zuzendaritza Batzordeak ere begi onez ikusi zuen izen hau. "Izena baino gehiago, esanahia izan da garrantzitsua", gaineratu du Ibintza Iragarrik.

URMENDI

1. Ura eta mendia, Oiartzun: Urmendi haur eskola bat izendatzeko "ezohiko" izena da. "Normalean haur eskolek umeen hizkuntzarekin lotutako izenak izaten dituzte. Guk haratago joan nahi izan dugu, eta Oiartzungo haur eskolarentzat izen bat aukeratu, ez edozein haur eskolarentzako balioko lukeen bat", dio Iragarrik. "Oiartzun oso ongi definitzen duen izena da: ura eta mendia".

2. Sorleku emankorra: Ergoien auzoan Zaldin eta Mari-motx artean dagoen mendi-kaskoa da, Oieleku azpian, Pilotasoro inguruan. Ur asko jaso eta ematen duena, oso leku aberats eta emankorra, erreka zidor askoren sorlekua. Honekin beraz, haurra sortzen denetik bere hezte prozesu horretan egiten duen ibilbidea biltzen duen izena irudikatu nahi izan da. Azken finean, lurra, naturak ematen duen horretatik abiatutako zerbait.

3. Historiaz betea: Bertan dago Urmendiko tunela. Garai batean Artikutzatik (Elamatik) zetorren Zorrolako ferrokarrila bertatik pasatzen zen. Fisikoki toki berezia izateaz gain, Oiartzungo historiarekin erabat lotuta dago.

URMENDI HAUR ESKOLAKO GELAK eta ESANAHIAK:

Egindako erreka, iturri eta mendien zerrendara jo zuten berriro hezkuntza proiektuarentzako eta egoitzarentzako izena aukeratu ondoren, eta bertan bildutako izenen artean aukeratu zituzten Urmendi egoitzako ikasgelentzako zein bestelako gelentzako (sukaldea, garbiketa gela, bulegoa, biltegia...) izenak. "Irakasle guztiek badute gustuko izenen batekin identifikatutako txokoa haur eskolan", dio Arbelaitzek.



- Uraundi erreka: Zuzendaritza bulegoa. Ergoien dago eta Urmendiko urak eramaten dituen erreka da.
- Epele erreka: Irakasle gela. Ergoien dago.
- Tornola erreka: Sukaldea. Tornola errekekako urak hornitzen ditu Oiartzungo etxeak. Eta sukaldeak haur eskola guztia janariz hornitzen du. Ergoien dago.
- Arditturri erreka: Biltegia. Kobazulo kontzeptuarekin lotuta. Ergoien dago.
- Ortadi erreka: Material gela. Iturriotzen dago.
- Gobara erreka: Garbiketa gela. Gobara zen garai batean emakumeek arropa garbitzera buru gainean eramaten zuten arropa pila. Gurutzen dago.
- Gorritxo Erreka: 2 urtekoen gela. Ergoien dago, Aiako Harriaren azpialdean.
- Sarobexar erreka: 2 urtekoen gela. Iturriotzen dago, Ozentzio ermitaren azpialdean.
- Illariz erreka: 2 urtekoen gela. Illariz proiektu guztiari jartzeko izen hautagaietako bat zen, nahiko harre-ra ona izan zuena. Ergoien dago, Errenga mendia- ren azpian, Lesakako mugetan sortzen da. Tornola errekarari ematen dizkio urak.
- Txalaka erreka: 2 urtekoen gela. Iturriotzen dago.
- Itturrola erreka: 2 urtekoen gela. Ergoien dago. Bianditz azpian, Exkax baino lehen dagoen iturria da, hemengo urek sortzen duten erreka Oiartzun eta Goi- zueta arteko muga naturala da (Nafarroa eta Gipuz- koa banatzen ditu). Exkaxetik, Berdabion barrena Añarbeko urtegira doa. Itturrola proiektu guztiari izena jartzeko izen hautagaietako bat zen; harrera ona izan zuen.
- Zorrolako erreka: Ertainen gela (1-2 urte). Karrikan dago.
- Beintxipi erreka: Ertainen gela (1-2 urte). Ergoien dagoen erreka.
- Olaxar erreka: Ertainen gela (1-2 urte). Ergoien dagoen erreka.
- Ziara erreka: Ertainen gela (1-2 urte). Iturriotzen dago.
- Erain erreka: Sehasken gela (0-1 urte). Haur ttikien sehaskak "eragin" egiten direlako. Ergoien dago.
- Leun erreka: Sehasken gela (0-1 urte). Ergoien dago.



2013/2014 ikasturtea Eskola Agenda 21 ENERGIA-KONTSUMOA II

Eskolako Agenda 21 izaeraz eta helburuz planeta osorako programa da.

Une honetan iraunkortasuneko hezkuntza funtsezkoa da gizakion eta ingurumenaren artean bestelako harremana sustatzeko eta, ondorioz, ingurumen-krisiak gaindituko dituen etorkizuna irudikatzeko. Haurtzaro ikastola Eskola Agenda 21 martxan jarri zenetik horretan sinetsi eta partaide aktiboa izan da, eta aurtien ere, iaz bezala, proiektuaren mugak eta zailtasunak handitzen ari diren arren, eta proiektuan sinesten dugulako, ez dugu amorerik eman nahi. **Energia eta kontsumoaren (II)** gaia landuko dugu, jasotzen diren laguntzak, krisiaren eraginez, urritu badira ere.



Hau dela eta, otsaileko lehen astean **sentsibilizazio eta motibazio saioak** egingo ditugu. Azken ikasturteetan udalak kontratatutako lankidearen eskutik egin baditugu ere, aurtien bertako baliabideekin moldatu beharko dugu.

HHtik DBH 1. ziklora ikasleak mailaka bildu eta otsailaren lehen astean sentsibilizazio eta motibazio saioak egin ditugu.

Ikastolako ikasle zaharrenek, DBH 4.ekoek alegia, txikiagoei aurkezpena egingo diete. DBH 4.ekoek iaz landu zuten energiaren gaia eta lan ederrak egin zituzten. Lan hauek oinarritzat hartuz, egokitu eta mailaka aurkezpenak antolatu dira, DBH 4.eko ikasle hirukoteen eskutik. Saio hauen helburua energia kontsumoaren gaian pentsatzen hasi eta hausnarketa bultzatzea da (energiaren kontsumo arduratsua bultzatuz, hondakinak eta hauen ondorioak...).



Oiartzoko ekitaldi akademikoa

Ikasturte honetan Oiartzoko ikasleei eskaintzen zaien ekitaldi akademikoa Oiartzunen antolatu du Oiartzo Batxilergo ikastolak.

Oiartzo Batxilergo Ikastola Orereta eta Haurtzaro ikastolaren artean sortutako ikastetxea denez, ekitaldi akademikoa txandatzuz egin ohi da bi herrietan: bi urte jarraian Orereta ikastolan eta hirugarrenez Oiartzunen, modu horretan 3 urteko zikloa osatuz.





Oiartzungo Udaleko Aretoko Nagusian prosa eta poesia lehiaketaren hogeita seigarren aldiaren sariak banatu ziren. Euskara sailak antolatutako lehiaketan 20 sari banatu ziren guztira eta Haurtzaro Ikastolako ikasleek 14 sari eskuratu zituzten. Ekimenean bertan Haurtzarokoek parte hartu zuten eta euren lanak ikusleekin partekatzeak aukera izan zuten. Zorionak eta segi aurrera!

Haurtzaro ikastolako ikasleak XXVI Prosa eta poesia lehiaketan

MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IDAZLEAREN IZENA
1. SAILA LH - 3	Saria	Ardi otsojalea	Belazti	Haitz Aranburu Mutiloa
	Saria	Katu-beltz	Nelaian	Maialen Leiza Diaz
2. SAILA LH - 4	Saria	Markel eta etxe mamua	Siux	Xabat Olaiz Etxeberria
	Saria	Gela gorraren misterioa	Sorgin	Janire Jacome Legorburu
5. SAILA DBH 3-4	Saria	Zumardiren bidetik	Galtzaberri	Jokin Irastortza Zabalegi
	Saria	Birraitonaren historia	Erprimoh	Paul San Sebastian
6. SAILA 16-18	Saria	Panpinen bi aurpegiak	Lore gorri	Haizea Saez de Eguilaz Perez
	Saria	Zu bilatu nahian	Guxi	Ilargi Aristondo Merino
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IDAZLEAREN IZENA
3. SAILA LH 5-6	Saria	Nire eskua zurean	Nire altxora	Izaro Telletxea Delgado
4. SAILA DBH 1-2	Saria	Baina badakit, nire ondoan zaudela	Rubita	Izar Susperregi Garmendia
5. SAILA DBH 3-4	Saria	Itzuliko zaren esperantzan	Galtzaberri	Jokin Irastortza Zabalegi
	Saria	Desberdinak baina berdinak	Goibel	Ane Lizarraga Etxeberria
6. SAILA 16-18	Saria	Testigantza beltza	Arima	Karen Muñoz Etxebeste
	Saria	Ezkutuko argiak	Ahmed	Haizea Saez de Eguilaz Perez

Aurtengo ekitaldia abenduaren 22an ospatu zen udaletxeko pleno aretoan, eguerdiko 12:00etan.

Egitaraua jarraian agertzen dena izan zen:

1.- Ekitaldiaren aurkezpena

Aurkezle: Sorkunde Lekuona.

2.- Ikastolako Lehendakariaren agurra.

BATXILER BERRIEI DIPLOMA BANAKETA

3.- Hitzaldia: Xabi Solano, irakasle eta Musikaria.

4.- Batxiler berriei diploma banatzea

2012-13 ikasturtean Oiartzo ikastolan batxiler ikasketak amaitu zituzten ikasleak, hamabost urtez Orereta ikastolan eta Haurtzaro ikastolan aritu ondoren, ikastolaren aintzatespena jaso zuten, euren ahalegin eta lorpenak errekonozituz.

5.- Ikasle horien ikastolako ibilbidearen argazki emanaldia.

Ekitaldira hiru ikastoletako ordezkariak, ikasleak eta euren familiako kide ugari bertaratu ziren, aretoa lepo bete zelarik; eta guztion eskutik jaso zuten merezitako errekonozimendua.

Lerro hauen bidez Haurtzaro Ikastolaren izenean zorionik beroena ikasle guztiei, eta bereziki Haurtzaro Ikastolakoiei.

Haur hezkuntza 1-2-3

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
HH 1	MARTXOAK 11	ERRETERIAKO AZOKARA	AZOKA EZAGUTZEA
HH 2	OTSAILAK 19	HERRIKO PLAZARA	LANBIDEAK IKUSTEA
HH 2	URTARRILA	BIDEGORRIRA ETA BASORA	MAILAKIDEEKIN ONGI PASATZEA
HH 2	APIRILA	EGUN PASA MENDIRA	UDABERRIAZ GOZATZEA
HH 3	MARTXOA	OIARTZUNGO AUZOETARA IBILALDIAK	AUZOAK, ERREKAK ETA ERAIKUNTZAK IKUSTEA
HH 3	MARTXOAK 25	ERRETERIARA	ZINEMA EUSKARAZ IKUSTEA
HH 2 - HH 3	HILERO	HERRIKO LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 1. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 1	URTARRILAK 23	ARRIKRUTZ	LEHEN GIZAKIAREN GARAIO KOBAZULOA EZAGUTZEA
LH 1	APIRILAK 4	ARDITURRI	ERROMATARREN GARAIO MEATEGIA EZAGUTZERA. MUSEOA IKUSTERA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 2. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 2	Urtarrilak 23	Eureka museoa (Donostia)	Unibertsoaz informatzea
LH 2	Otsailak 18	La Casa del Café (Oiartzun)	Produktu baten ekoizpena behatzea

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 3. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 3	Otsailak 4	Iturriotz	Santa Ageda bezpera ospatzea
LH 3	Otsailak 3/5	Frigoliburutegia	Irakurzaletasuna bultzatzea
LH 3	Otsailak 3	Agenda 21	Sentsibilizazio saioa
LH 3	2. hiruhilabetea	Udal liburutegi	Irakurzaletasuna bultzatzea

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 4. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 4	Urtarrilak 29	"Robin Hood" ingelesez ikusi (Santa Teresa)	Ingelesa landuz antzerkiarekin gozatzea
LH 4	Otsailak 4	Ludotekako Frigoliburutegira	Irakurzaletasuna eta trukea bultzatzea
LH 4	Otsailak 4	Santa Agedako koplak kantatzera (Iturriotz)	Ohitura zaharrak mantentzea
LH 4	Otsailak 13	FESTA SAHARARRA (sarrerako Jaiman)	Arabiaren gaia gertuagotik ezagutzea
LH 4	Otsailak 18	Pello Añorgaren ipuin kontaketa	Ipuinen bidez berdintasunaren inguruko lanketa egitea

Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 5. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 5	Urtarrilean	Haurtzaro	Pasilloko munduko mapa erraldoia
LH 5	Urtarrilak 10, 17 eta 29	Ikastolan, gelan, sare sozialei buruzko tailerra	Nola baliatu Internetez eta sare sozialez arriskuak murriztuz
LH 5	Urtarrilak 24	Gernika	Batzarra eta Euskal Herria museoa ezagutu
LH 5	Otsailak 4	Elizalde auzoan zehar Santa Agedari kantari ibili	Euskal ohiturak eta tradizioak mantentzea
LH 5	Otsailak 7	Ikastolako areto nagusian Agenda 21eko sentsibilizazio kanpaina	Ikasleak motibatzea eta sentsibilizatzea energia kontsumoaren aurrean
LH 5	Otsailak 14	Erreterria	Zinema euskaraz "Maitagarria"
LH 5	Otsailak 12-19	Oiartzun	Elizako kanpandorrera bisita
LH 5	Martxoak	Ikastolako laborategian	Esperimentuen bidez gelan idatzitako hipotesiak frogatu
LH 5	Martxoak 24	Pintxo dastatzea ikastolako geletan	Pintxo osasuntsuak egin
LH 5	Apirilak 2	Haurtzaro	Euskaraz bizi 2. kanpaina. Jull bozketa



Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 6. maila

Maila	Noiz	Nora / non / zer	Helburua
LH 6	Urtarrilak 28 eta 29	Ikastolan, gelan, saioak odol emailen elkartekoekin	Inguruneke 3. UDren barruan, odola osagaiaren inguruneke informazioa aditu batzuen eskutik jasotzea, zalantzak argitzea, ariketak egitea...
LH 6	Otsailak 4	Elizalde auzoan zehar Santa Agedari kantari ibili	Euskal ohiturak eta tradizioak mantentzea
LH 6	Otsailak 13	Ikastolako areto nagusian Agenda 21eko sentsibilizazio kanpaina	Ikasleak motibatzea eta sentsibilizatzea energia kontsumoaren aurrean
LH 6	Otsailak 14	Errenteriako Niessen aretora "Maitagarri amandrea" pelikula ikustera	Film honen bidez hainbat gai lantzea. Adib: lanbide motak aztertzea
LH 6	Martxoak 6	Urnietara, bertako zabor planta bisitatzea eta ontzien banaketa ikustera	4. UDko lan sektoreen lanketaren barrenean lantegi bat bisitatzea

DBH 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
DBH1	Urtarrilak 31	Antzerki emanaldia. Ikastolan	Mailakideei emanaldia egitea
	Otsailak 4	Santa Ageda. Oiartzunen	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea.
	Otsaileko 2. eta 3. asteetan	Eskola agenda 21. Motibazio saioak. Ikastolan	Eskola agenda 21. Energia.
	Otsailak 28	Inauteriak. Ikastolan	Euskal inauterien ezagutza.
	Martxoak 11 eta 18	Txuri Urdin izotz jauregira. Donostia	Gorputz Hezkuntza. Izotz gainean patinatu
DBH2	Urtarrilak 22, 23 eta 24	Heziketa afektibo sexuala. Ikastolan	Garbiñe Merino sexologoarekin heziketa afektibo-sexuala
	Otsailak 4	Santa Ageda. Oiartzunen	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea.
	Otsaileko 2. eta 3. asteetan	Eskola agenda 21. motibazio saioak. Ikastolan	Eskola agenda 21. Energia.
	Otsailak 10, 14, 19 eta 21	Osasun heziketa eta droga-menpekotasunerako prebentzio programa. Ikastolan	Agipaden eta ikastolaren eskutik osasun heziketa
	Otsailak 28	Inauteriak. Ikastolan	Euskal inauterien ezagutza.
DBH3	Otsailak 4	Santa Ageda. Oiartzunen	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea.
	Otsaileko 2. eta 3. asteetan	Eskola agenda 21. Motibazio saioak ikastolan	Eskola agenda 21. Energia.
	Otsailak 28	Inauteriak. Ikastolan	Euskal inauterien ezagutza
	Otsail amaiera - martxo hasiera	Heziketa afektibo sexuala. Ikastolan	Garbiñe Merino sexologoarekin heziketa afektibo-sexuala
	Martxoak 23 - 30	Gwisenira. Oiartzuarrak Britainian	Breitoiekin trukea. Frantses irakasgaiako ikasleak
DBH4	Urtarrilak 15	Irudi Biziak. Irunen	Osasun heziketa
	Otsailak 4	Santa Ageda. Oiartzunen	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea.
	Otsaileko 2 eta 3.asteetan	Eskola agenda 21. Motibazio saioak. Ikastolan	Eskola agenda 21. Energia.
	Otsailak 28	Inauteriak. Ikastolan	Euskal inauterien ezagutza eta ikastolari azken eskaintza.
	Otsail amaiera - martxo hasiera	Heziketa afektibo sexuala. Ikastolan	Garbiñe Merino sexologoarekin heziketa afektibo-sexuala
	Martxo hasiera	Osasun heziketa eta droga-menpekotasun prebentzio programa. Ikastolan	Agipaden eta ikastolaren eskutik osasun heziketa
	Martxoak 11	Oiartzoko orientatzailearen bisita. Ikastolan	DBH 4. mailako ikasleen orientazioa etorkizunari begira
	Martxoak 11	Euskal Eurohiria. Baiona - Donostia	BIO-GEOko ikasle taldeak ekimenean parte hartzea
	Martxoak 17	Oiartzungo Udal aretoan "Ekonomia eta Zergak" Zigor Goikoetxea zinegotziaren hitzaldia	EKONOMIA eta ZERGAK programa pilotua
	Martxoak 23 - 30	Gwisenira. Oiartzuarrak Britainian	Breitoiekin trukea. Frantses irakasgaia



XXI jardunaldi pedagogikoak

2014ko Jardunaldi pedagogikoak martxoaren 12, 13 eta 14 an izan dira. Honako gai izan delarik hizpide

ZIENTZIAK IKASI ETA IRAKATSI ZERTARAKO? HH ETA LH ETAPEI ZUZENDUTA

Duela hilabete jardunaldietan parte hartzeko proposamena egin ziguten Ikastolen elkartetik, Haurtzaro ikastolan haur txikiekin zientziaren irakaskuntzarekin erlazionatutako esperientziaren bat aurkeztea eskatu zitzaigun. Egoera hau izanik koordinatzaile artean gurean zientzia nola lantzen genuen hausnartzen hasi ginen.

Baina gure geletan, eskoletan irakasten duguna zientzia ote da? Edota zientziak ba al du lekurik gure ikasgeletan? Zientzia ez al da ba unibertsitatean eta laborategietan egiten dena? Zer da egiten duguna Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntza? Galdera hauei erantzunez baieztatu genuen gure ikasleek zientzia egin eta zientzia bizitzen dutela.

Euskal Curriculumean, Ikaslearen Irteera Profilean Orokorrean definitutako konpetentzia zientifikora jo genuen, eta horixe erreferentetzat erabiliz hasi ginen. **Konpetentzia zientifikoak hauxe dio:**

“Ikaslea gai da ezagutza eta metodologia zientifikoan zein esperientzia pertsonalean oinarrituz, bere burua eta natura ulertzeko; eta horrekin guztiarekin, giza jokabide orok norberarengan eta mundu naturalean duen eraginaz ohartuz, eragin horiekiko erabaki arduratsuak hartzeko”.

Irakasle bezala, gure ibilbide profesionalean, ikasleekin lanean, ohartuak gaude, ikuspegi horretatik lan eginaz:

1. batetik, haur txikiak izan arren, esperientzia pertsonalak badituztela, eta kuriositatez beteriko pertsonak direla beraz, Ikaslea gai da **ezagutza eta metodologia zientifikoan zein esperientzia pertsonalean oinarrituz, bere burua eta natura ulertzeko;**
2. eta horrekin guztiarekin, giza jokabide orok norberarengan eta mundu naturalean duen eraginaz ohartuz, gai da **eragin horiekiko erabaki arduratsuak hartzeko.**



Eta zer da metodo zientifikoa?

Metodo hau erabiltzeko ikasleek berezkoa duten ezaugarriez baliatzen gara **KURIOSITATEA**, jaiotzez dugu eta horren garapena eta elikatzea erronkatzat hartzen dugu...

Norberak bere esperientzian oinarrituz, haurtzarotan bizitutako bizipenetatik abiatuz, erantzunak bilatzeaz gain, hurbileko fenomenoengain inguruan **GALDERA ONAK (bat batean erantzun ezin diren galderak, ikertzea, pentsatzea, eskatzen duten galderak)** egiten irakatsi nahi diegu.... Ekinez, ikastea nahi dugu. **Zer ikasi? Zertarako ikasi?**

Irudian ageri den moduan metodo zientifikoak bere baitan behaketa, galderak egitea eta ondoren hipotesiak sortzea dakar. Hipotesi horiek ezagutza bihurtzeko esperientziazioa ezin bestekoa da, datu bilketa egiteko. Esperimentatu ondoren ondorio batzuk ateratzen ditugu aurretik egindako hipotesi horiek baieztatu edo ezeztatzeko, egindako lana dokumentu batean jasotzen da. Azkenik dakigunarekin galdera berriak sortzen ditugu ikasten jarraitzeko.

EGINEZ IKASTEN DA Schank-ek defendatzen duen **learning-by-doing** leloan. Ikuspegi Zientifikoa lantzea, **URTXINTXA eta TXANELA** proiektuetan aurreikusia dago, ikasmateriala ikasleekin konpetentzia hori lantzeko diseinatua dago. Beste kontu bat da ikasleekin zientzia lantzea, hori ez baitago materialaren baitan, irakaslearen baitan baizik. Gurean, Haurtzaro Ikastolan, zientzia egiten dugu geletan, eta horrela ikasten jarraitzen dugu.



Estazio meteorologikoa ikastolan

Hemendik aurrera tenperatura, presioa, haizearen abiadura, prezipitazioak... neurtu ahal izango ditugu ikastolan jarri dugun estazio meteorologiko berriarekin. Tresna honekin neurketak jasoko ditugu eta modu digitalean gorde. Ondoren datuen trataera egokia egin eta datu estatistikoak lortuko ditugu gure herriko klimaren azterketa egiteko.

Zertarako erabiliko ditugu datu hauek? Eskola agenda 21 egitasmoaren barruan ENERGIA KONTSUMOA gaia lantzen ari gara aurten. Beraz, datuekin gure ikastolaren energia kontsumo datuak eta klimaren gorabeherak erkatuko ditugu.

Ikerketa hauen ondorioz hainbat gai lantzeko aukera izango dugu: gure energia erabileraren egokitasuna edo efizientzia, eraikuntzen isolamendu termikoa, planetaren berokuntza globala eta abar.





Euskararen
TXOKOA

EUSKARAZ BIZI, 2. KANPAINA

Oraingoan, Nazioarteko Haur eta Gazte Literaturaren egunaren inguruan egin dugun kanpainaz hitz egin nahi dizuegu. Martxoaren 24tik apirilaren 4ra bitartean iraun du. Xedea zuen ikastolako ikasleen artean **irakurzaletasuna indartzea** eta **sendotzea**. Girotzeko, Ruper Ordorikaren “Zaindu maite duzun hori” abestia ez ezik, Euskara Hobean Hobeko esaldi hau ere erabili dugu:

Euria ari du goian behean





Euria ari du goian behean

Urtero bezala, erakusketa izan da kanpainaren ardatza. Bertan, 2010etik aurrera argitaratutako liburu gomendagarriak izan dira ikasleen eskura, eta Antton Kazabon eta Joxe Mari Iturralde idazleek leku berezia izan dute.

Haur Hezkuntzako ikasleek irakurketari loturiko bi txoko izan dituzte: bata erakusketa orokorreko "amorenaren manta" izenekoa, eta bestea etxetik ekarritako liburuekin geletan atondu dutena. Gainera, kanpainak iraun duen hamabostaldian zehar Antton Kazabonen istorioak entzuteko aukera izan dute ttikienek.

Lehen Hezkuntzakoen egitarauan, hainbat ekintza antolatu dira. Alde batetik, Nafarroako Ikastolen Elkar-teak bultzatzen duen Juul kanpainan hartu dute parte. Ekimen horretan, LH 2. eta 3. ziklokoek 2010etik aurrera argitaratutako liburu eta ilustratzailerik gustukoena aukeratu dituzte. Ikastolako emaitzak beste zenbait ikastoletakoekin elkartu ondoren, Euskal Herriko liburu eta ilustratzaile gustukoena izendatu dira.

Bestalde, ikasle horiek erakusketa gelaz baliatzeko aukera izan dute eta bertan beren adinerako gomendagarriak diren liburuak irakurri dituzte. Halaber, apirilaren 2an LH 6. mailakoek Joxe Mari Iturralderekin bisita izan zuten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek ere parte hartu dute Juul kanpainan. Bertan liburu gustukoena aukeratzeaz gain, erakusketa bisitatu eta Eskutun euskara elkarteak antolatutako "3. Literatur lehiaketan" parte hartu dute. Lehiaketa horretan, 6 libururen kontrazalak 6 daturekin (izenburua, argitaletxea, idazlea...) lotu behar izan dituzte eta gela bakoitzeko irabazleen artean liburu bana zozkatu da.

Hauxe izan da ikasturte honetako gure 2. kanpaina, datorren hiruhilekoan ere izango duzue gure berri, ordura arte, ongi izan!

leup!

Gu Kuadrillategiko gaztiak ga
ta Kuadrillategira apuntatzia animatzeizuegu.
Erki pasteugu ta! Ekintza earrak in ttugu oañ arte:
beldur gaua, elegante afariya, kirolak, zinia, pintxo lehiaketa,
mozorro festa, irteera txuri-urdinea ta Zarautzea re jun giñen lota!
Hasieran DBH 1 ta 2kuk denak batea giñen, biño oain banatuta itten
ttugu ekintzak, bestela zail xamarra itten zaigu ta antolatzia. Hemendik
aurreako ekintzak itteko goguakin gaude. Apirillin, adibidez, Kuadrillategi
festa ingo dugu Trintxerpen. Oarsoaldeko ta Lasarteko Kuadrillategikuk
juntatuko ga ta denak batea pasako dugu eguna. Hola harremanak
sendotzen ttugu gure artin ta jende berriya ezagutzeko aukera
izango dugu. Ta udara aldea, berriz, eguraldiya hobetzen
hasten denin ekintza difentik itteko aukera eukikougu:
hondartzara jun, erre kara, Donostira...
ta kurtso bukaeran beste irteera
bat ingo dugu!

Besteik gabe,
ongi izan
ta gure
berri
izango
zute
!

KUADRILLATEGI





HH1

KAIXO LAGUNOK,

EGURALDI ONA HASI DA ETA HH 1.EKOAK IKASTOLAKO EREMUTIK KANPORA IRTEN GARA. INGURUAK ERE AUKERA PAREGABEAK EMATEN DIZKIGU GURE BURUA EZAGUTU ETA JOLASERAKO. BEGIRA ZEIN GAUZA GUTXI BEHAR DITUGUN ONGI-ONGI PASATZEKO.






HH2

**HH 2.EKO NESKA-MUTILOAK,
GIZAKI GUZTIEN MODUAN,
EZ GARA BETI BERDIN SENTITZEN.**

LO GUTXI EGINDA GAUDENEAN
NEKATUAK, LAGUNEKIN
ISKANBILAREN BAT IZATEN
DUGUNEAN **HASERRE**, SENIDE
ETA LAGUNEKIN JOLASTEN ARI
GARENEAN **POZIK**, EZUSTEKO BAT
HARTZEN DUGUNEAN **HARRITUAK**,
AMATXO ETA AITATXOREN
INGURUTIK ALDENTZEN GARENEAN
TRISTE, TXIMISTA ETA TRUMOIA
EGITEN DUENEAN **URDURI**, AMETS
GAIZTOREN BAT IZATEN DUGUNEAN
BERRIZ, **BELDURTUAK**...
SENTITZEN GARA.



GELAN SENTIMENDU
HAUETAZ GUZTIEZ
HIZKETAN ARITU GARA,
NOLA ETA NOIZ SENTITZEN
GAREN HORRELA, ETA
KONTURATU GARA GURE
AURPEGIA BIHOTZAREN
IRUDIA DELA.

NAHIKOA DA AURPEGIRA
BEGIRATZEA JAKITEKO
GURE ONDOKOAK NOLA
SENTITZEN DIREN ETA
UNE HORRETAN, BAT EGIN
DEZAKEGU BERAREKIN.

JAKINA, EZIN GARA BETI
POZIK EGON, BAINA SAIA
GAITEZEN DENON ARTEAN
ETA IKUSIKO DUZUE NOLA
LORTUKO DUGUN. **ANIMO!**





HH3 **BEGIRA ZEINEN ANTZERKI POLITA EGIN GENUEN:** IKASGELAN IKASITAKO
HITZ EGITEKO MODU ZUZENA ETA HIZTEGI BERRIA ERABILIZ ANTZERKIA EGIN
GENUEN ETA ZEIN ONDO PASA GENUEN.





ELIKADURA OSASUNTSUA

HAILAKOAK GAUR A ASKO IKASI DUGU ELIKADURARI BURUZ



PIRAMIDEA LANDU DUGU

EGUNEKO OTARDU OREKATUAREN
GARRANTZIAZ KONTURATU GARA

ASTIGARRA	OTARDU	OTARDU
ARRAUN HARRA AGURTU ETA LURRALAK 2		
ESNEA ETA ESNEKIAK 2-4		
BARAZKIAK 2, FRUTA 3		
OGIA, ZERENAK, ARROZA PASTA 4-6		
OSTIAK		
ARRAUN HARRA AGURTU ETA LURRALAK 2		
ESNEA ETA ESNEKIAK 2-4		
BARAZKIAK 2, FRUTA 3		
OGIA, ZERENAK, ARROZA PASTA 4-6		
OSTIAK		
ARRAUN HARRA AGURTU ETA LURRALAK 2		
ESNEA ETA ESNEKIAK 2-4		
BARAZKIAK 2, FRUTA 3		
OGIA, ZERENAK, ARROZA PASTA 4-6		
OSTIAK		
ARRAUN HARRA AGURTU ETA LURRALAK 2		
ESNEA ETA ESNEKIAK 2-4		
BARAZKIAK 2, FRUTA 3		
OGIA, ZERENAK, ARROZA PASTA 4-6		
OSTIAK		
ARRAUN HARRA AGURTU ETA LURRALAK 2		
ESNEA ETA ESNEKIAK 2-4		
BARAZKIAK 2, FRUTA 3		
OGIA, ZERENAK, ARROZA PASTA 4-6		
OSTIAK		



MERIENDA ANTOLATU, PRESTATU ETA DASTATU DUGU.
ETA PRIMERAN PASA DUGU!



Inauteriak 2014



Partzuergoa



HH





LH1-2



LH 3-4





LH5-LH6




DBH 1-2-3







DBH4



Aurkezleak



Gurasoak



Zuzendaritza





LH2

MIRÓ

Joan eta etorri, etorri eta joan... Joan Miró artista kataluniarrarenganaino heldu gara gure espaziontzi magikoan. Planeta, ilargi eta izarren argipean, LH 2. mailako ikasleak, Miró txiki gisa, artista fin bihurtu gara... Egia esan, ikasitako eduki guztiak margoztatzeko aitzakia ederra izan da berau.





TXINA

LH3. mailan Txina gaiari bukaera dotore bat eman diogu LH 5. mailako ikasleekin jaialdi bat partekatuaz.




Emanaldi honetan txinatarrak asko landu zituzten hiru eremutan jorratu ditugu: musika, olerkiak eta osasuna (akupuntura, sendabelarrak, Tai Chi...).





Alfonbra magikoan igo eta bidaia ederra egin dugu Arabian zehar. Euskal Herritik atera eta munduan barrena ibili gara. Asko ikasi dugu: arabiar penintsularen kokalekua, arabiarren bizimodua Erdi Aroan, islamaren sorrera eta zabalkundea... Eta primeran pasa dugu gainera!

Bertsoak, marrazkiak... ere egin ditugu. Eta baita TXOKO TXURIA apaindu ere! Begira, begira:



Eta bukatzeko, izugarritzko FESTA SAHARARRA egin dugu pasilloan prestatu genuen "El Watan" elkartearen haiman. Oiartzunen bizi diren hainbat sahararren bixitari esker, tea, pastak, datilak... dastatu ahal izan ditugu. Oso gustura egon gara beraiekin kontu kontari!



Bihotz-bihotzez:

El Watan!



Kanpandorrera bisita

**Orain dela aste batzuk elizako kanpandorrera joa-
teko gonbita jaso genuen.**

Asteazken arratsalde bat aprobetxatuz kanpandorrera
abiatu ginen.

Elizara iritsi ginenean zain zeuden gidariek elizako bi
gela erakutsi zizkiguten. Jarraian 108 eskailera igo
ondoren elizako sabaiaren goiko aldera iritsi ginen.
Duela urte batzuk eliza eusteko behar den harri
garrantzitsuenetako zati bat hautsi eta erori egin zela
kontatu ziguten. Dagoeneko konpondua eta bere
tokian dago.

Ondoren kanpandorrera igo ginen eta bertan dauden
hiru kanpaiak ikusi genituen. Kanpai horietako batek
“San Esteban” izena du. Kontatu zigutenez garai bate-
an mezuak igortzeko erabiltzen zituzten kanpaiak:
suteak, festak, hiletak...



Guri gehien gustatu zitzaiguna kanpaiekin jo ziguten doi-
nua izan zen. Hankak eta eskuak erabiliz hiru kanpaiak
joaz eskaini ziguten doinu ederra. Kanpaiak jo ondoren
oihartzun handia sortzen zuten kanpai handi haiek.

Oso esperientzia polita izan zen eta gomendatzen dizue-
gu joatea.

ANIMA ZAITEZ!



Hemengo **QR kodea**
mugikorrez eskaneatzen
baduzu bideotxo
ikusiko duzu



LA ASOCIACIÓN DE DONANTES DE SANGRE DE GIPUZKOA

Durante la segunda evaluación hemos trabajado el tema del cuerpo humano. Por eso vinieron dos enfermeras colaboradoras de la Asociación de Donantes de Sangre de Gipuzkoa (A.D.S.G.) a explicarnos la importancia de donar la sangre.

La asociación de donantes de sangre de Gipuzkoa está formada por un grupo de personas que se encarga de organizar la extracción y recogida de la sangre de los donantes para luego llevarla al banco de sangre de los hospitales de Gipuzkoa.

Para ser donante de sangre es necesario ser una persona sana de salud y tener entre 18 y 65 años.

Hace 200 años los humanos empezaron a investigar porque algunas personas morían a causa de desangrarse. Como la sangre no se fabrica se intentó hacer transfusiones de sangre de los animales a humanos. Sin embargo la gente seguía muriéndose. Entonces prohibieron este tipo de transfusiones. Tiempo después, intentaron la transfusión de sangre entre humanos mediante tubos de plástico pero a veces algunas personas morían y tras seguir investigando se descubrió que había distintos tipos de sangre.

La sangre está compuesta por 4 componentes: las plaquetas, los glóbulos rojos, los glóbulos blancos y el plasma. Pero los componentes de la sangre que se dona se dividen y se guardan en tres bolsas diferentes y esterilizadas. Por un lado se guardan los glóbulos rojos, por otro el plasma y por último se guardan las plaquetas. Os preguntaréis que se hace con los glóbulos blancos. Los glóbulos blancos no se pueden donar y por eso al separar los componentes con una máquina estos se quedan pegados en una especie de filtro.

Como ya hemos dicho hay varios tipos de sangre: AB⁺, AB⁻, B⁺, B⁻, A⁺, A⁻, O⁺, O⁻.

El tipo de sangre que recibe una persona tiene que ser igual a la suya o más baja. Por ejemplo: si yo soy una de las enfermas y tengo A⁻ puedo recibir sangre O⁻ o A⁻ porque es igual o más baja que la mía, pero no podría recibir O⁺ porque me estarían poniendo una sustancia que mi sangre no tiene (el Rh).

Y estas son algunas de las cosas que nos enseñaron las enfermeras de la Asociación de Donantes de Sangre de Gipuzkoa.



LH 6 maila

Rocio Falero y Jara Campano



ZU GOGOAN

Zergatik joan zinen bizitzatik?
da gure galdera
eta ezin dugula burutik atera.
Buruan sartu zitzaizun
egin duzuna
gure aita kuttuna.
Bizitza honetatik joan zinenean
geratu ginen oso gaizki
baina argituko du aurki.
Zure erantzunaren zain egongo gara
bizitza guztian
zu gogoan
esperantza hesitan

Unai Uribe
DBH 1. B gela

MILA ARGAZKI

Izar bat,
Izar bi.
Gauean ilun,
goizean argi.

Agur, ilargi!
Zatoz, eguzki!

Egunak ematen ditu
mila argazki.

Jenia Urkia
DBH 1. B gela

ZUHAITZAK AZTERTZEN ETA GLOGSTERRA

Eki proiektuak aldaketa ugari ekarri dizkigu. Hauetako bat IKTen erabilera da. Zientzia tailerrean zuhaitzen inguruan ikerketa lantxo bat egin ondoren, laburpena glogster batekin egin dugu.

Glogster ingelesez soilik dago, baina oso erabilera intuitiboa du, eta ikonoak dituenez, oso erraz ulertzen dira programaren aukerak.

Egin ditugun hainbat lan ikastolako web orrian daude eta bertatik sar zaitezke gure blogean: <http://ekihaurtzaro01.blogspot.com.es/>. Sartu bertan eta aztertu programa honekin egin ditugun lanak. Astigar zuria, haritza eta lizarra dira hemen aukeratu ditugunak.

Hona hemen programa horretan topatuko duzunaren hainbat irudi:








Matematika




DBH 2. mailan bigarren hiruhilabetekoan estatistika eta geometria izan ditugu langai. Gai horien lanketarako aplikazio informatikoak baliatu ditugu zenbaitetan. Zehazki esanda, estatistika lantzeko kalkulu-orria erabiltzen ikasi dugu. Zertarako? Datuak ordenatzeko eta antolatzeko eta haien irudikapen grafikoak sortzeko. Geometrian, aldiz, Geogebra izeneko aplikazioaren erabileran lehen urratsak egin ditugu. Geogebra aplikazioa geometria era dinamikoan erabiltzeko tresna da. Eskuaira, kartaboi, erregela, konpas eta bestelako marrazketarako tresnak alde batera utzi eta geometria lauко irudiak digitalki sortzen aritu gara. Honako hauek dira egindako lanetatik aukeratutako batzuk.

Egileak:

Asier Fernandez, Xabier Eizmendi, Aitor Olaiz, Garazi Elgarresta, Oritz Sein eta Leire Galdos



tresna berriekin lantzen





FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Mirarien garaia
Egilea: Anne-Laure Bondon
Itzultzailea: Usua Lasa Urkidi
Argitaletxea: Ibaizabal
Argitalpen-urtea: 2009

Liburua, jatorrian, frantsesez idatzita dago. Itzulpena irakurterraza da, izan ere, ez du hiztegi espezializatu erabiltzen. Eleberri honetan bi errefuxiatu dira protagonistak: 11 urteko ume bat eta hura adoptatzen duen emakumea.

Liburuak erakusten digu, gerraren ondorioz, trenak zibilen aurkako arma bezala erabiltzen hasi zirela, leherraraziz.

Tren horietako baten barruan, liburuko protagonista den umea eta bere ama genetikoa zeuden. Ama leherketaren ondorioz hilzorian zegoen eta inguruko emakume bati bere haurra zaintzeko eskatu zion. Hark onartu eta umea semeordetzat hartu zuen. Ordutik aurrera ez zuten batere bizimodu eroso eta erraza izan, pobreziak menperatu baitzituen. Gerraren desplazamenduak oso maiz bizilekuz aldatzera behartu zituen.

Nire ustez, liburu hau ez da oso polita, oso luzea baita, eta ez zait liburuaren gai nagusia gustatu. Baina gomendatzekotan, nik liburu hau 12 urtetik gorako irakurleentzat gomendatuko nuke, nahiko gogorra baita.

Unai Flaño
 DBH3



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Ninak Ospa
Egilea: Marliese Arold
Itzul.: Joxemari Berasategi eta Maialen Berasategi
Argitaletxea: Elkar
Argitalpen-urtea: 2010

Liburuaren jatorrizko hizkuntza alemana da. Irakurterraza da, lehen ataletik harrapatzen zaituen horietakoa da liburuak. 17 urteko neskatxa bat da protagonista, Nina izenekoa. Bere etxeko giroaz, gurasoez aspertuta, etxetik alde egitea erabakiko du, eta Hanburgora abiatuko da bizimodu berri baten bila. Bertan, arazo asko izango ditu, baina gaitutuko ditu. Lana aurkitzeko zailtasunak izango baditu ere, hainbat pertsonak lagunduko diote. Mutil batzuk ezagutuko ditu eta hezurretaraino maiteminduko da. Ez zaio, ez, oso samurra egingo arazo horretatik ihes egitea!

Oso liburu interesgarria, emozionantea, hunkigarria, irakurterraza da honako hau. Ezin izango duzu erdi bukaturik utzi!

Intza Errandonea Olaziregi
 DBH3



intxixuak

Oiartzungo zaharrenek diotenez, intxixuak garai bateko izaki beltzaxka bizardunak ziren, bizkar zabaleko jentil indartsuak, sorginen senarrak. Mendian bizi zirela diote batzuek, "Kataxulo" kobazuloan hain zuzen ere, eta bertan urrea urtzen omen zuten. Beste batzuek berriz, Arditurriko harkaitz zuloetan bizi zirela diote.

Gauez bihurtzen ziren indartsu; egunez, eguzki izpien azpian ez omen zuten indarrik.

Intxixuek garrantzi berezia dute gure herriko, Oiartzungo mitologian, eta oraindik ere bizirik jarraitzen dute ihoteei esker.

1916an Oiartzungo apaiza zen Florencio Portuk intxixuei buruzko ikerketa lanari ekin zion, egun batzuk lehenago, Arditurriko meategietan meatzari batzuek pertsonaia misteriotso bat aurkitu zutela eta. Ahalegi-nak egin zituzten berarekin hitz egiteko, euskaraz, gaztelaniaz eta baita frantsesez, baina alferrik. Oiartzuarrek oso argi zuten "pertsonaia misteriotso" hori intxixua zela, nahiz eta haiek ikusi ez izan.

Hori pasa zenetik, intxixuei buruzko zurrumurru eta esamesak asko ugaritu ziren oiartzuarren artean.

Gipuzkoako inauteriak ia guztiz galdu ziren Gerra zibilaren ostean, Oiartzungoak barne. 1980. Urtean, ordea, oiartzuarrek ihoteak berreskuratu zituzten eta intxixu eta sorginei protagonismo berezia eman zieten; jendea zakuz jantzita, suaren inguruan sorgin eta intxixuen konpainian dantzan.

Inauteriak baino aste bat lehenago ospatzen den festa honek garrantzi handia hartu du oiartzuarren artean. Intxixuak Aiako Harritatik Doneztebe plazara (herriko plazara) jaisten direnerako, bertan egon ohi dira herri-tarrak pertsonaia berezi hauen zain.

Agur esateko momentua iristean, intxixu eta sorginek Kataxulora itzuli behar dutenean, Oiartzungo abesti edo ereserkiarekin agurtzen dituzte, hurrengo urtea arte; "Oiartzun, gogor erantzun!", oihukatuz.

Eider Tomé
DBH4





Etxebizitza bat diseinatzea da CAD irakasgaiko proiektua. Oiartzo Ikastolako hainbat ikaslek buru-belarri dihardute lanean.



Ibai Kortabitarte Oiartzun

"Bidean" diseinatuz, 3Dn eraikiko diren itxaropenarekin



Oiartzo Ikastolako hogeita hiru ikaslek hautatu genuen CAD eta diseinua irakasgaia 2. mailako Batxilergoa hasi genuenean. Nahiz eta beste aukera batzuk izan hautazko irakasgaien artean, gehiago ala gutxiago hausnartuta, AutoCAD programarekin diseinatzen ikasteko esperientziari ekin genion.

Ikasturte hasieran ez ginen zuzenean hasi gure etxebizitza diseinatzen, honetan hasi aurretik AutoCAD programa erabiltzen ikasten jarri ginen ordenagailuen aurrean. <<Lehenengo aldiz ordenagailu aurrean jarri nintzenean ea nolako programa zen, oso arraro eta zaila iruditu zitzaidan, baina Moodle-n gaika dugun teoria irakurritz eta ariketak eginez, pixkanaka ulergarria eta erabilgarriagoa dela iruditzen ari zait>>, aitortu du Iñigo Ruiz de Azua ikasleak.

<<Gainera, uste nuena baino garrantzi gutxiago dauka saguaren erabilerak, izan ere, komandoak direlakoak idaztean teklatuarekin esaten diozu ordenagailuari zer egin; adibidez, linea agindua eman ondoren marra horren neurriak zenbakiak idatziz adierazi behar dituzu>>, gehitu du Manex Arrutik. <<Zoritxarrez, ez du euskarazko formatua programa honek>>, aipatu du bigarren ikasle honek berak, <<Gaztelaniazko hitz berriak ikasteko ere balio izan digu>>.

Etxebizitzaren planoak urratsez urrats diseinatu ditugu. Lehenik arkatzez marraztu genuen zer nolako itxura izatea nahi genuen jakiteko. Behin marraztuta, ordenagailuan kopia genituen komandoak sartuz.

Askorik pentsatu gabe hasi ginen sartzen aginduek, egia esan; neurriak jakin gabe, objektuak nola marraztu jakin gabe, etab. Arazoak genituela ohartu ginenean, konturatu ginen neurriak ez bagenituen behar bezalakoak jartzen, ondoren, objektuak txertatzean, alde handia zegoela proportzioetan, izan ere, ohe batek, gela erdia okupatu bailezake neurri txikiegiak baditu gelak.

Etxea erabat diseinatu ondoren, gela bakoitzak zuen azalera kalkulatu genuen m²-etan, eta oso etxe handiak marraztu genituela ohartu ginen. Hala ere, neurri horiekin jarraitu genuen, eta behin 2Dtan marrazturik genuelarik, 3Dtan eraikitzeke garaia iritsi zen.

3Dtara bilakaera, SketchUp programarekin

Behin planoak marrazturik genituelarik, 3Dtan etxebizitza eraikitzeke AutoCAD programako marrazkia SketchUp programan kopia genituen. Ariketa honen helburua zen errealtatean nola geratuko litzatekeen etxea ikustea. Gustuko ditugun koloreak sar ditzakegu, itxura erreala emateko. Egurrezkoa zorua edo moketaren artean, sofa bat ala bestearen artean, eta hainbat aukeraren artean zein jarri izango da hurrengo arazoa, ea nota ona ateratzeko helburuarekin diseinutako etxea, inoiz errealtatean eraikiko ote den geure buruari galdetzen diogun bitartean.

Ibai Kortabitarte Oiartzun
OIARTZO



Aitor Puertas

Ez da kontu berria bizitza bihurgunez beterik dagoela, baina batzuk besteak baino itxiagoak dira. Autoz, motoz, edo bizikletaz ibili den edonork daki bihurgune itxi bat hartzeko nahikoa lan izaten dela. 2010eko azarokoa izango zen zure bizitzako bihurgunerik itxiena eta gogorrena, ez?

Bihurgunea ez zen batere itxia, baina Volvo markako autoak oso gogorrak direla esan dezaket. Bai, orain arte bizitzan izan dudana kolpe gogorrena izan da, bai fisikoki baita mentalki ere. Bizitza guztiz aldatzen duten horietakoa.

Agian, irakurleren batek jakingo ez duenez, kontatuko al zenuke, hitz gutxitan, orduan gertaturikoa?

Azaroaren 26an lanetik atera nintzen Donostian, eta motoan futbol entrenamendura joan behar nuen, baina ez nintzen inoiz iritsi. Bidean auto bat aurkako norabidean sartu zen. Egin nezakeen bakarra alde batera biratzea zen, aurrez aurre jo ez nagan autoak, baina pareta bat nuen. Horregatik, gorputzeko ezker alde guztia hautsi nuen (behatzak, eskua, besoa, aldaka, bizkarra eta ezker hanka guztia) eta, ondorioz, ezkerreko hanka galdu nuen.

Benetan esperientzia gogorra izanagatik, lortu zenuen mamuari iskin egitea. Nola? Zerk eta nork lagundu zizuten?

Hainbat gauza daude: lehena, oso garrantzizkoa, nire motoaren norabidea aldatu izana. Horri esker kotxearen eta hormaren gainetik 'hegan' irten nintzen, eta errepidera erori ez nintzenez, harrapatu ninduenaren


atzetik zetozen kotxeek ez ninduten aurrean eraman. Lurrean hautsita nintzela, nirekin Haurtzaro Ikastolan ikasi zuen neska batek (Oihane Ibargoieneke) lagundu zidan, anbulantzia heldu arte. Osakidetzak lan bikaina egin zuen ondoren. Eta errehabilitazio-garaian ere, noski, lagun eta familiak bultzada handia eman zidaten. Laburtuz, ezagutzen dudana eta ezagutu nuen jende guztiak lagundu ninduen.

Ikusten da, horrez gain, bizipozez eta umorez jarraitu zenuela. Horren erakusle da zure blogean nola definitzen duzun zure burua: “%75 pertsona, %25 robota”. Zertan aldatu zuen zure bizitza %25 horrek?

Gustuko nituen kirol asko ezin ditut berriro egin: eskaileretan gora igotzea infernua da eta protesi mundua ikaragarri garestia! Gauza txar asko ditu, baina baita onak ere, eta horiek bilatzen saiatzen naiz beti: hankako azkazalak mozteko denboraren erdia behar dut! Eta, zeinek esango zidan munduan zehar bidaia tuko nuela maite dudana kirol batean lehiatzen?

Kontuak kontu, eta ezintasunak ezintasun, kirolari gisa nabarmendu zara. Zer garrantzi izan zuen kirolak errehabilitazio-garaian?

Komatik esnatu nintzenean, eta hanka bakarrik falta nuela jakin nuenean (uste nuen gorpildun aulki batean geratuko nintzela) amari esan nion: “Buff!, kirola egin dezaket eta!”. Niretzat oso garrantzitsua da mugitzea, eta lehiakorra naizenez beti egin izan dut kirolen bat. Ospitalean nengoela ehunka bideo ikusi nituen, inter-



neten, nire egoeran zegoen jendeak zer egiten zuen jakiteko. Errehabilitazioan ere beti dena ematen nuen, bai haserre eta inpotentzia erretzeko, eta baita nire aurreko eguneko marka hobetzeko ere. Ia dena ulertzen dut lehiaketa bat bezala.

Noiz ohartu zinen kirolak zure bizitzan zuen garrantziaz?

Betidanik ohartu naiz kirolak niretzat zuen garrantziaz, eta oso gustura egin dut beti.

Non eman zenituen zure lehen futbolari pausoak?

Ia denak bezala, ikastolan.

Ba al zen beste kirolik benetan erakartzen zintuen?

Futbola, korri egitea, tenisa, pala eta snowa ziren nire gustukoenak.

Hortaz, Oiartzun Kirol Elkarteko futbolaria zinen istripuaren aurretik; eliteko snowboardlaria ondoren. Eboluzio horrek sakrifizio handia eskatuko zizun, seguruenik.

Futboleant ez nintzen beste munduko ezer eta ondo pasatzeagatik, kirola egiteagatik, lagunengatik eta

lehiaketarengatik jokatzeko nuen. Orain gauza bera egiten dut, baina mundu mailan: herrialde askotako lagunak ditut eta munduan zehar lehiatzen dugu. Sakrifizio handiena diruarena da, AEBetan hilabeteak pasatzea, txapelketetara bidaiatzea eta behar dugun materiala ez dira batere merkeak. Hasieran, hizkuntza eta familia eta lagunetatik urrun egotea da zailena.

Gazte eta ez hain gazte askorentzat eredugarri zarela dudarik ez dago, arazoei aurre egiteko bizi-poz eta indar handia erakutsi duzula, mugarik ez dagoela sinestaraz dezakeen puntako kirolaria. Inoiz horrela pentsatu al duzu?

Ez nuen inoiz planteatu. Horrelako egoera batean sartzen zaren arte ez duzu zure burua horrela imajinatzen. Baina azken urteetan ezagutu dudana jendea ikusita esan dezaket ez dagoela mugarik.

Gainera, egin behar izan duzun esfortzua bikoitza izan dela esan daiteke: lehenik futbolari gisa nabarmentzera iristeko egin behar izan zenuen lana, eta ondoren goi mailako snowboardlari izateko. Merezki izan al du?

Egia esan, ez dut esfortzu bezala ikusi. Hiru urtez operazioak eta epaiketak bakarrik izan nituen, eta snowa egiteko aukera eduki nuenean, buruz, munduko tokirik onenean sentitzen nintzen. Ahal dudana zoriontsuen izaten saiatzen naiz, ez dut snowan hobetzea "lana" bezala ulertzen. Uste dut horrela ulertzeak egin didala azkar hobetzea.

Zein izan da kirol horretan egin duzun ibilbidea?

2012ko abenduan Espainiako snow egokituko taldeak proba batzuk egin zituen taldean sartu nahi zuen edozeinentzat. Bertan agertu nintzen nire snowko hanka (ez da egunero erabiltzen dudana, snowrako bakarrik da) eta ilusioarekin. Ez nekien nola eskiatu protesiarekin, eta ez ninduten taldean onartu. Horrek gehiago motibatu ninduen, haiei ahoak ixteko. Munduko talde hoberena zein zen jakin eta gero (Team Utah), hegazkina hartu eta bertan agertu nintzen.

Park Cityn (Utah, AEB) kokatzen dira, eta herrialde guztietako jendea dute taldean. Zer egin behar nuen eta zer behar nuen esan eta gero, hiru hilabete pasa nituen bertan snowa eta ingelesa ikasten. Hiru hilabete horietan egin nituen txapelketetako emaitzekin munduko 15.a bukatu nuen eta 2014ko Sochiko Joko Paraoilinpikoetarako sailkatu nintzen.

Aurten berriz joan naiz Utah-era beste hiru hilabetez, gehiago hobetzeko. Orain Munduko Kopa bat dugu La Molinan (Katalunian) eta martxoan Sochira (Errusiara) goaz, Paraoilinpikoetara.



Gauzak horrela, Errusiara bidaiatzeko gogoz?

Bai! Bertan munduko hoberenak egongo dira. Esperientzia interesgarria izango da. Ez naiz inoiz Errusian egon eta goazen lekuak zoragarria dirudi.

Bertako Neguko Paraolimpiar jokoetan parte hartzea zoaz, ez? Motibaturik?

Hori da. Ni oraindik ikaste prozesuan nago, eta esperientzia bezala hartuko dut 2018ko jokoetarako, baina badut gogoaz, bai.

Emango al zenituzke datu gehiago jokoan inguruan? Zein herritan dira? Noiz? Zein kirol izango dira?

Guk egiten dugun kirola snowboard-crossa da. Moto-crossa bezalakoa, baina snowko ohol baten gainean. Kirol hau lehen aldiz egongo da Olinpiar jokoetan, eta debut honek gauza txar bat dakar: lehen urtea denez, ez dago faktorerik, hau da, ezintasunak ez dira konpentsatzen.

Bi belaunak falta dituen batek oina bakarra falta duen baten kontra lehiatuko du, bereizketarik gabe. Lehen urte honetan oina falta dutenak izango dira lehen hogeia eta belauna falta dugunok azkena ez izateagatik borrokatuko dugu. Datorren urtetik aurrera lesio motaren arabera norberaren denboran konpentsatuko da segundoak gutxituz; eta guri goian lehiatzeko aukera bat emanez. Jokoak martxoaren 3tik 16ra izango dira, nire proba 14an da. Aurreko neguko Parolimpiadetan zeuden kirol guztiak egongo dira, snowboard-crossa gehituta.

Zein helburu dituzu lehiaketarako? Noraino iristearekin egiten duzu amets, eta noraino helduko zarela uste duzu?

Lehen esan dudan bezala, denbora konpentsaziorik gabe ezinezkoa da lehen 15etan egotea, beraz lehen hiru belaunik gabekoetan banengo ikaragarria izango litzateke. Aurten esperientziarekin pozik egongo naiz, baina intentzioa da 2018ko jokoetan domina bat lortzea. Oraingoz pistan akabatzen ez banaiz, pozik!

Behin Olinpiar jokoak amaiturik, zer asmo dituzu aurrera begira?

Agian urte bat libre hartuko dut, lehiaketetatik kanpo, eta snowko irakasle titulua ateratzeko aprobetxatuko dut ezintasunak dituen jendeari irakatsi ahal izateko. Oraingoz ez dut Sochitik gerokoan pentsatzen, ikusiko da zer datorren!

*Jokin Irastorza
Maddi Puy
DBH3*

Webgune aurpegi berriua!



Txinparterako artikulu honen enkarguarekin batera Haurtzaroko Teknozientzia #blogen lehiaketan finalista izendatu den berri pozgarria jaso dut. Baina tira, aurrerago egingo dut horren aipamena.

Ikusi duzue ezta? Joan den udan itxura berria hartu zuen gure webguneak. Itxura bakarrik ez, lan egiteko askoz erosoagoa da. Probatu behar zenuke zein erabilerraza den Joxin!

Webgunearen helburu nagusia komunikatzea da. Goi-buruaren azpian, menu laranja, IDAZKARITZA atala erabiliz; idazkariari, zuzendariari edo lehendakariari mezua bidaltzea kontu erraza da, bertako formularioa betez. Zuzenean hitz egin nahi duzula? Bertan duzu telefonoa eta idazkaritza ordutegia. Idatziz? Bertan helbidea. Haurtzaro non dagoen ez dakizula? Bertan GPS koordinatuak!

Ostiralero, formatu digitalean —bidean galtzeko arriskurik gabe eta paper gutxiago kontsumituz—, prest izaten da BULETINA atala; hiru hilero TXINPART berria eta suertatzen denean, azalean bertan momentuko BERRIA: mendi taldeko irteera dela, buletina dela, asteburuko partidak direla, menua dela, Ttamtto aplikazioa dela... Azken hau menu laranjaren azpian ageri da eta azkeneko sei berri ageri dira jira eta bira. Berri guztiak ikusi nahi izanez gero, ezkerreko menuan, KOMUNIKAZIO atalean berri-zerrenda aukera egizu.



Eta testuarekin konformatzen ez garenez, ezkerreko menuko komunikazio atal berean edo eta beheko logoen bidez ARGAZKITEGI eta BIDEO BILTEGIRA sar zaitzke komunikazio grafikoa eskuratzea. Azalean, gainera, IKASTOLA IRUDITAN atala eta tarteka argitara ematen ditugun BIDEOEK gure eguneroko lana erakusten duen leihoa izan nahi dute. Bertsolari txapelketa nagusia bera, zuzenean, streaming bidez eman genuen gurean.

Informazioa nahi duzula? Azalean Haurtzaro ikastola identifikatzen duten PROIEKTUAK zure eskura. Ikasturteko egutegia, tutoreak, guraso ordezkariak, menuak, jantokiko monitoreak, garraioa... ezkerreko menuan lehena ageri den IKASTURTEAn sartu. Honen azpian HAURTZARO ikastolako informazio zabala topatuko duzu. Eta eguraldia, zer egiten da Euskal Herrian zerura begiratu gabe? Ezin, bada, hutsune hori utzi. Oiartzungo eguraldiaren aurreikuspena azalean! Inauteri bezperan zalantzarik gabe gehien kontsultatu dena.

Mendi taldeak eta eskolaz kanpoko ekintzek bere txokoa dute. Irteera eta ekintzen berri eta bertan jasotako argazkien berri ematen dute. Aipatzekoa atletismo taldeak eginiko bloga, ikusteko modukoa!

GURASOENA dugu txoko berriena. Geletako ordezkariak, iradokizunak eta truke txokoaz gain, lotura interesgarriak atala osatzen ari gara. Zuek, gure gurasoak, ahalik eta prestatuen izateko tresnak eskainiz.

Badu beste funtziorik; gurea beste tresna eta webgunerako bidegurutzea da. IKASLEEK eta IRAKASLEEK behar dituzten aplikazio eta webguneetara joateko LASTERBIDEAK ederki astintzen dituzte. Bidean galdu gabe.

Eta esfortzu hau guztia zertarako? Egutero, batz bestea, 250 bisitari izaten ditugu, asteburuetan 100 baino gehixeago. Ostiraleko, 305 gurasok eta langileria guztiak gure berri buletina beren posta elektronikoan jasotzen dute. Facebook-en 200 eta Twitterren 40 jarraitzaile

inguru ditugu. LH 5. eta 6. mailako eta DBHko ikasleria guztia, 300 inguru, eta irakasleriek lasterbideak atala beharren arabera erabiltzen dute. Eta ekitaldi, berri ala jaialdi berezietan zenbakiak izugarri igotzen dira. Ez dira kopuru eskasak ez!

Interesgarria iruditzen zaizula? JARRAI GAITZAZU atalaren bidez lotu. Ezkerreko menuan ageri den atal horretan hiru aukera dituzu:

- Postaz jarraitzea - ostiraleko berri buletina jasoko zenuke zure posta elektronikoan.
- Twitterrez jarraitzea edo Facebook-ez jarraitzea. Kasu honetan berria idazten den bezain pronto jasoko duzu. Webguneko berriak eta beste blog eta kanaletako berriak, TeknoZientzia bloga adibidez.

Honen guztiaren adibide garbiena Inauteri eguneko Txioke da. Momenturo, azken erabakia, azken berria, txiokatu eta Twitter eta Facebook bidez mugikorretan jarraitu ahal izan zen.

Horretarako, gure webguneko jarrai gaitzazu horretan klik txiki bat egin eta zure profila lotu behar duzu sare soziala. Era berean, beste sare hainbatetara zabaltea aztertzen ari gara.

TeknoZientzia #blogetan lehiaketan finalista

Webgunez gain, Haurtzaro ikastolan bost blog dira nagusi. Hasi berriak diren Atletismo bloga (eskolaz kanpokoetatik sarrera duena) eta komunikazio atletik sarrera duten Eskutun, English, IKT txokoa eta TeknoZientzia blogak.

Azkue Fundazioak eta Argiak bat eginik mundu digitaallean euskaraz aritzeko hautua egin dutenei ospea emateko lehiaketa antolatu dute. Lehiaketaren helburua blogari euskaldunak piztea da eta haien lanari oihartzuna ematea. Horretarako, egiten den lana saritu da blogaririk onenak aukeratzuz.

Abenduan hasitako lehiaketa honetan 115 blogek eman zuten izena. Eta Zientzia eta teknologia kategorian Haurtzaro Ikastolako TeknoZientzia bloga hiru finalisten artean izendatu da, Euskal natura eta Zientzia.net prestigiozko bi blogekin batera.

**Zorionak eta mila esker
zuen bozekin lagundu diguzuenoi!**

Josu Arotzena
IKT DINAMIZATZAILEA



Ekonomia eta zergak



Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatuta, Ekonomia eta Zergak izena duen proiektu pilotu batean parte hartu du Haurtzaro Ikastolak Gipuzkoako beste sei ikastetxerekin batera. Proiektu hau DBH 4ko ikasleei bideratua dago, baita Batxilergoko ikasleei ere. Gabonen aurretik martxan jarri ginen eta ikasleekin batera adostutako hainbat fase igaro ditugu:

- Kokapen fasea: Gaiaren kokatzea helburu duen fase honetan, ekonomi ikuspegitik ikas bidaiaaren hausnarketa, taldekatzea, lan esparruak, eskakizunak, web orriak... antolatu dira.
- Planifikazio fasea: talde kooperatibo bakoitzaren lana denboralizatu eta ikasleek lanaren baitan rol ezberdinetan jardun dira.
- Garapen fasea: informazioaren bilketa, azterketa eta sintesi lana egin da.
- Ekoizpen fasea: informazioaren komunikaziorako tresnak osatu, Power pointen eraketa.
- Komunikazio fasea: taldekako ahozko aurkezpenak ikaskideen aurrean.
- Ondorioen fasea: erakundeetara bisita eta ondorio orokorrak atera.

Unitate Didaktiko honen lanketa egin ondoren, ikasleek arlo hauen ezagutza sakondu dutela esan genezake:

- Sektore publikoak (Udaletxeak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak...) eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak antzeman.
- Sektore publikoaren aurrekontuak: sartutako dirua eta diru horren erabilpena zerbitzuen eskaintzan.
- Zergen ekarpenarekin ematen diren zerbitzuak gizarte orori identifikatu eta balioetsi.
- Sistema fiskala aztertu: zergak zer diren, zein motatakoak dauden, nork ordaintzen dituen, nork biltzen dituen, karga fiskalen banaketa ...
- Zergen funtzioa, kalkulua eta erabilera antzeman eta simulazioak egin.

- Zergen iruzurra eta bere ondorioak identifikatu eta horiek ekiditeko izan behar diren jarrerak indartu.
- Hezkuntza kooperatiboaren metodologiaz elkarrekin lan egin eta bakarkako erantzukizuna hartuz helburu komunak lortu.
- Egiten diren lanak hartzaile potentzial desberdinei komunikatu tresna egokiak erabiliz.
- IKTak era eraginkor batean erabili informazioa jasotzeko, ekoizteko eta komunikatzeko.

Era eskematiko batean, hona hemen landu diren kontzeptu nagusiak



Ikasleak, gizarteko ekonomia eta zergen inguruko ezagutzen jabe egin eta konpetenteagoak dira.

Donibane Azkarate
Pili Lizaso
Irakasleak



Animaliak

R	A	A	V	A	K	A	J	P	G
F	I	K	P	M	E	E	A	F	K
X	G	E	A	R	T	D	L	A	A
T	R	R	I	A	V	R	I	R	Z
X	A	R	D	I	S	U	D	R	T
A	T	R	L	M	T	Z	N	O	N
H	R	A	A	R	X	I	A	H	U
A	U	T	Z	A	I	Y	G	E	H
L	P	M	S	F	T	O	U	B	A
A	I	A	K	K	A	K	S	E	J

ahuntza
akerrra
armiarma
behorra
ipurtargia
izurdea
sugandila
txahala
txita
zaldia

Ale honetan, jolas bat azalduko dizuegu!

LA HABANAKO ONTZIA



"La Habanako ontzia" deitzen da eta taldean jolasten da, baina binaka ere jolastea posible da beste aukerarik ez badago. Jolasa honakoan datza:

Batek esaten du: "La Habanatik ontzi bat etorri da eta ekarri ditu... PATATAK". Orduan besteek, hasierako silabarekin, "PA"-z hasten diren hitzak asmatu behar dituzte: PANPI-NAK, PAGOAK, PANELAK...

Jolasa zailtzeko hasierako silaba hartu beharrean, lehenengo letra bakarrik erabiliko dugu: "B"

Zorionak batxiller berriei!

Desiorik onenak zuentzat Haurtzaro Ikastolaren izenean



txinpart⁵⁸

www.hurtzaroikastola.net



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRUN
Tfnua.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN

☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.C.
KIRLOKORTAKO KIDUEKETA
GOSTOEN INTEGRAL PEBLUPORTATIBO



ELORSINS KIROLDEIA • Euzkadi, 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 892
F: 943 490 591 • geza@elorsins.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

